



**DERIOKO UDAL KIROLDEGIKO FITNESS GELARAKO EKIPAMENDUA
EROSTEKO AUKERAREKIN ALOKATZEKO KONTRATUA PROZEDURA
IREKIAREN BIDEZ ESLEITZEA ARAUTZEN DUTEN ADMINISTRAZIO
KLAUSULEN PLEGUA DERIOKO UDAL KIROLDEGIA ERAKUNDE
AUTONOMOA**

Esp.: 001/2015

KLAUSULAK:

1.- Xedea.

Derioko Udal Kiroldegiko fitness-gelarako beharrezko ekipamendua ALOKATZEA, diseinatzea eta definitzea, baldintza teknikoen pleguko zehaztapenekin bat etorritz.

Egin beharreko lanak honako hauei jarraikiz egingo dira: administrazio-klausula berezien plegu hau, preskripzio tekniko berezien plegua eta administrazio kontratatzaileak agindutako edozein jarraibide, betiere plegu honi aplikatuta.

2.- Araudia.

Kontratu hau HORNIDURA izaerako ohiko administrazio-kontratua da, 3/2011 LEDren 19.1 a) artikulua xedatutakoaren arabera.

Ohiko administrazio-kontratu bat den heinean, 3/2011 LEDren 19.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek arautuko dute kontratua prestatzea, esleitzea, kontratuaren eragina eta amaiera:

-Administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoen plegu honetan jasotako klausulak.

-3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena.

-1098/2001 ED, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen gaineko Legearen Testu Bategina onesten duena.

-817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, zati batean garatzen duena urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea.

-Kontratazioa arautzen duten Administrazio Zuzenbideko gainerako arau osagarri eta aplikagarriak eta, horiek egon ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak.



3.- Kontratu-mota.

Hornidura lizitzeko gehieneko aurrekontua 79.000 eurokoa da (kontratuaren balio zenbatetsia), gehi % 21eko BEZari dagozkion 21.000 euro. **Guztira, 100.000 euro.**

Lizitaziorako oinarri gisa erabiliko den alokairuaren kuota 2083.30 eurokoa (% 21eko BEZa barne) izango da gehienez ere, eta 48 hilabetetan ordainduko da, zati berdinetan. Hala ere, lizitatzailleek zenbateko hori hobetu ahal izango dute euren eskaintzetan.

48 hilabete igarota, hornitutako ondasunen balioa 0 eurokoa izango da.

Enpresa lizitatzailleek eskaintzek lizitazio tipoa hobetu beharko dute, zenbateko zehatz bat ezarriz., I. Eranskinean jasotako proposamen-ereduan zehaztutakoaren arabera, eta zenbateko horren barne egongo dira ez bakarrik kontratu-prezioak, baita kontzeptu horiek eragindako zerga-kuota guztiak ere, bereziki balio erantsiaren zergarenak, abenduaren 29ko 1624/92 Errege Dekretuak onetsitako araudiaren 25. artikuluan jasotzen den bezala.

4. Idatziz jasotzea kreditua badagoela.

Badago kreditua hurrengo partidaren kargura:

Organikoa	Funtzionala	Ekonomikoa
10	3420	20200

“Makineria alokatzea”

Horri dagokionez, kreditu atxikipen “RC” egokia egin da deskribatutako aurrekontu-partidan. Era berean, aurrekontu arloan eskumena duen organoak hitzeman du gorde egingo dituela ukitutako etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuei dagozkien kredituak.

5. Prozedura eta esleitzeko modua.



Kontratu hau **prozedura irekiaren** bidez esleituko da, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 157. artikuluan ezarritakoaren arabera. Beraz, kontratuan interesa duten enpresari guztiek aurkeztu ahal izango dute proposamen bat.

Kontratua **eskaintza onuragarriari** esleituko zaio, pleguan ezarritako irizpideei jarraikiz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, administrazioak eskubidea du kontratua ez esleitzeko.

Administrazio-klausulen plegu honetan ezartzen dira prozedura hau esleitzeko oinarri izango diren irizpideak. Irizpide horiek pleguan ematen zaien garrantzi eta haztapenaren arabera egongo dira ordenatuta.

Espedientearen izapidetzea **premiatzkoa** izango da.

Epeak **egun naturaletan** zenbatuko dira, betiere ez bada adierazten egun baliodunak bakarrik zenbatuko direla.

6.- Kontratua betetzeko epea.

Kontratuaren iraupena **48 hilabetekoa** izango da, **horniduraren harreraren egintza formala sinatzen denetik zenbatzen hasita.**

Epe horrek irauten duen bitartean, esleipendunak kontratua bete beharko du Derioko Udal Kiroldagiko zerbitzu teknikoek eginiko administrazio-klausulen eta klausula teknikoen pleguen arabera eta Administrazioak emandako jarraibideei jarraikiz.

Alokairuaren prezioa modu finkoan eta jarraituan zehaztuko da; beraz, kontratu honetan **ez dira prezioak berrikusiko**, Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 Legearen Testu Bategineko 89. eta 90. artikuluetan xedatuta dagoen bezala.

7.- Atzerapenagatiko zigorrak.

Kontratistak kontratua betetzeko finkatuta dauden epeetan bete behar du kontratua.

Kontratista berandutu egin dela ulertzeko, ez da beharrezkoa izango aldeztu aurretik Administrazioak agintzea.

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutu egin bada epea betetzeari dagokionez, administrazioak erabaki dezake kontratua suntsiaraztea edota



eguneko zigorrak ezartzea proportzio honetan: 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5en multiplora heltzen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua gauzatzen jarraitu behar duela erabakitzeke beste zigor batzuk jarritz.

8.- Berme-aldia.

48 hilabeteko epea ezarri da berme gisa, preskripzio teknikoen pleguarekin bat etorritz, harrera formala egiten den egunetik zenbatzen hasita, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean aurreikusitako ondoreetarako.

Administrazioak berme-aldian zehar eskubidea izango du akatsak edo kalteak dituzten hornitutako ondasunak konpontzeko edo berriak jartzeko, hori nahikoa izango balitz.

Administrazioak berme-aldian zehar egiaztatuko balu hornitutako ondasunak ez direla egokiak ezarritako helbururako kontratistari egotzi lekizkiokeen arrazoiengatik, eta ikusiko balitz ondasun horiek konpontzea edo berriak jartzea ez dela nahikoa helburu hori lortzeko, epe horren barruan, baztertu edo kontratistaren kontura utzi ahal izango ditu.

9.- Eskaintzak aurkeztea.

Lizitatuzaileek **Derioko Udal Kiroldegiko** bulegoetan (Arantzazu Kalea, 4 Derio) aurkeztuko dituzte euren eskaintzak.

08:00etatik 13:30era aurkeztuko dituzte, **zortzi egun naturaleko epean**, dagokion deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Proposamenak aurkezteko finkatutako azken eguna baliogabea edo larunbata bada, epea hurrengo lehen egun baliodunean amaituko da automatikoki.



Eskaintzak honako elementu hauek izango ditu:

Lizitatuzaileek HIRU gutun-azal aurkeztu beharko dituzte, itxita:

Gutun-azal horien kanpoaldean honako hau adieraziko da: “Derioko Udal Kiroldagiko fitness-gela diseinatzeko eta definitzeko eta beharrezko ekipamendua ALOKATZEKO kontratua esleitzeko prozedura irekian parte hartzeko eskaintza” titulua, lizitatuzailearen izena eta NAN edo IFK zenbakia eta gutun-azal mota (A, B eta C). Gutun-azalaren barnean, honako agiri hauek egongo dira sartuta:

A gutun-azala: Administrazio-agiriak.

1.- Enpresariaren izaera juridikoa egiaztatzen duten agiriak. Enpresa pertsona juridikoa bada, izaera egiaztatzeko, eratze- edo aldatze-eskritura aurkeztu beharko da, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan. Banakako enpresariak derrigor aurkeztu beharko dute Nortasun Agiri Nazionalaren edo, hala badagokio, araudiaren arabera ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia egiaztatua.

2.- Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak. Beste baten izenean jarduten dutenek egiaztatu beharko dute horretarako ahalmena dutela, eta euren edo, hala badagokio, araudiaren arabera ordezkatzeko duenaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia egiaztatua aurkeztu beharko dute. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalmena Merkataritza Erregistroan agertu beharko da inskribatuta, egintza jakin baterako ahalmena den kasuetan izan ezik.

3.- Kontratistaren kaudimen ekonomiko eta teknikoa.

Kaudimena egiaztatzeko bitartekoak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen 3/2011 LEDren 75. eta 77. artikuluetan adierazitako dira. Zehazki, honako bitartekoren bat erabiliko da:

Kaudimen ekonomikoari dagokionez:



- Finantza-erakundeen adierazpenak.
- Merkataritza-erregistroan aurkeztutako urteko kontuak.
- Kontratuaren xede diren negozioen bolumen osoari buruzko adierazpena.
- Kontratazio-organoak egokitzen jotzen duen beste edozein agiri.

Kaudimen teknikoari eta profesionalari dagokionez:

- Azken bost urteetan eginiko zerbitzu edo lan nagusien zerrenda.
- Kontratua gauzatzeko egongo diren langileen adierazpena.
- Enpresak azken hiru urteetan izandako batez besteko langile-kopuruari buruzko adierazpena, hori egiaztatzeko dagokion agiriekin batera.

Hori dela eta, pertsona juridikoek prestazio hori jasota izango dute hala definitutako elkartearen eratzeko jardueraren xederako. Hori dagokion erregistro publikoan inskribatutako eskritura edo estatutuen bidez egiaztatuko da, 3/2011 LEDren 57. eta 72. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

4.- Enpresa kontratatzeke debekurik ez duela egiaztatzen duen adierazpen erantzulea, 3/2011 LEDren 60. artikuluaekin bat etorritik.

Adierazpen horrek egun indarrean dauden legeen arabera zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatuko du, alde batera utzita eskakizun horren egiaztapena enpresariak esleipena jaso baino lehen aurkezteko beharra.

5.- Helbidea: Lizitatuak guztiek adierazi beharko dute jakinarazpenak igortzeko helbidea. Hori betetzeko, posta elektronikoaren helbide bat eta telefono- eta fax-zenbaki bat adieraziko da.

6. Kontratista behin-behineko bermea eratzetik salbuetsita egongo da.

Aurreko 1, 2 eta 3 zenbakietan adierazitako egoerak ziurtagiriaren bidez egiaztatu ahal izango dira. Euskal Autonomia Erkidegoko edo Bizkaiko Foru Aldundiko **Kontratisten Erregistroak** edo Estatuko Lizitatuak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak emango du, edo bestela sailkapen komunitarioko ziurtagiriaren bidez, 3/2011 LEDren 84. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Kasu honetan, aipatu ziurtagiriarekin



batera lizitatzaillearen erantzukizun adierazpena aurkeztu beharko da, horren bidez adierazteko dagokion ziurtagirian adierazitako egoerak ez dutela aldaketarik izan.

Dagokion erregistroko ziurtagirian jasota ez dauden egoerak direla eta, exijitu den egiaztagiria aurkeztuko da.

DOKUMENTU GUZTIAK JATORRIZKOAK IZANGO DIRA, ETA EZ DA ONARTUKO FOTOKOPIARIK, HALA EGIAZTATZEKO ESKUMENEN FUNTZIONARIOAK DAGOZKIEN JATORRIZKOEKIN BEHAR BEZALA ERKATU DITUEN KASUETAN IZAN EZIK.

B gutun-azala: Agiri teknikoak.

Datu objektiboei buruzko proposamenean sartuta ez dagoen balorazioa jaso dezaketen agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Oro har, baloratu beharreko agiri guztiak (memoria), plegu hauetako hamaikagarren klausularen arabera, baita prestazioa ezagutarazteko kontratistak egokitzen jotzen dituenak eta Administrazioak eta/edo Preskripzio Teknikoen Pleguek eskatzen dituztenak edota oro har exijitutako baldintzak betetzen direla egiaztatze beharrezkotzat jotzen direnak. Arrigorriagako Udalarari dagokionez, lizitatzailan parte hartzen duten enpresei eskatu ahal izango die aurkeztutako proposamenak defendatzeko edo azaltzeko.

C gutun-azala: Proposamen ekonomikoa.

Proposamen ekonomikoa: I. Eranskinean agertzen den proposamen-ereduaren arabera.

Lizitatzailleak xede horretarako aurkeztutako eta hark sinatutako agirian adierazi beharko du, I. Eranskinean agertzen den ereduari jarraikiz, hitzematzen duela kontratuaren xedea beteko duela adierazitako zenbatekoan, une oro lizitazio mota errespetatuz.



10.- Plikak irekitzea.

Kontratazio Mahaiak, xede horretarako legez eraturakoak, Udaleko webguneko **KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN adierazten den egunean eta orduan**, lizitatuzaileek garaiz eta formaz aurkeztutako agiriak ekitaldi publikoan irekiko ditu, eta dagokionean, esleipena egin behar duen kontratazio-organora eramango ditu, egokitzat jotzen duen proposamenarekin eta aktarekin batera.

Ekitaldi horretan, automatikoki kuantifika ezin daitezkeen irizpideei edo irizpide subjektiboei (B GUTUN-AZALA) dagokien gutun-azala besterik ez da irekiko. Hala, dokumentu bidez jasoko da espedientean jardun dena.

Era berean, proposamenaren gainerakoa (C GUTUN-AZALA) irekitzeko ekitaldia ospatzeko eguna ezarriko da, eta data hori KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN argitaratuko da.

Hori guztia alde aurretik garaiz eta formaz aurkeztutako administrazio agirien kalifikazioa eginda, 817/2009 EDren 27. artikuluari jarraikiz.

A gutun-azalean aurkeztutako agirietan konpon daitezkeen akatsak edo hutsuneak egotekotan, kontratazio-mahaiak interesdunei jakinaraziko die fax edo posta elektronikoaren bidez. Hala, gehienez ere 3 egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena egiten denetik aurrera zenbatzen hasita, atzemandako akatsak konpontzeko.

Agiriaren akatsak oinarritzkoak badira edo akats materialak konpondu ezin badira, proposamenari ezezkoa emango zaio.

Lan horiek amaituta, kontratazio-mahaiak berariazko aipamena egingo du lizitazioan onartutakoei, baztertutakoei eta horiek baztertu izanaren arrazoiei buruz.

Balio judizioen arabera haztatu beharreko eskaintzaren elementuei emandako balorazioa (B gutun-azala) C gutun-azala (irizpide objektiboei buruzko eskaintza jasotzen duen gutun-azala irekiko da) jendaurrean irekitzeko bigarren ekitaldi publikoaren hasieran ezagutaraziko da. Ondoren, C gutun-azala irekiko da, eta orduan emango da horien edukiaren berri.

Jarduketa guztiak ikusita, kontratazio-mahaiak kontratua esleitzeko proposamena igorriko dio berau egiteaz arduratuko den kontratazio-organismoari.

11.- Esleitzeko oinarri gisa erabiliko diren irizpideak.



A) FORMULA BIDEZ ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK (gehienez ere 45 puntu).

Emango den zerbitzuaren deskripzio-memoria: gehienez 45 puntu, jarraian agertzen den moduan banatuta:

A) Eskainitako makinaren deskripzioa: **gehienez ere 30 puntu.**

ZEHAZTAPEN OROKORRAK:

- A.- Diseinu ergonomikoa: erabiltzaileari materiala eskura izatea, egokitzea, programatzea eta erabiltzea erraztea eta bere ezaugarrietara egokitu ahal izatea.
- B.- Erabiltzaileari informazioa ematea: gauzatuko den jardueraren, lan-profilaren, energia-eskakizunaren, bolumenaren, intentsitatearen eta abarren inguruan.
- C.- Segurtasuna. Egungo Europako eta nazioko araudia betetzea, entrenatzeko aparatuen segurtasunari eta funtzionamenduari dagokionez. Erabileraren inguruko ohartarazpen eta segurtasun seinaleak.

OHARRA: Lizitzaileek lehiaketaren xede diren makinaren ezaugarri teknikoak buruzko agiriak aurkeztu beharko dituzte, horiek berariaz definituta gera daitezten. Informazio hori aurkeztu ezean, ezarritako ezaugarri teknikoak ez betetzea ekarriko du.

EKIPAMENDU KARDIOBASKULARRAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK.

1.- KORRIKA EGITEKO ZINTA ELEKTRONIKOA.-

- Motorra gutxienez 4,5 cv-koa izango da.
- Abiadura: 0-22 km/ordu
- Gutxieneko malda: % 0-15.
- Bihotz-erritmoa kontrolatzea esku-sentsorearen bidez (pultsometro polarrarekin bateragarria).
- Gutxienez 7 entrenamendu programa: kaloriak, bihotz-maiztasuna, denbora, distantzia, abiadura eta abar adieraziko ditu (pantailan agertuko da informazioa). Erabiltzaileak profila konfiguratzeko programak. Kontrol-panel elektronikoa.
- Larrialdietarako botoia eta geratzeko sistema automatikoa.
- Tapizaren gutxieneko azalera: 50 x150 cm.
- Alboko babesgarriak zintaren bi aldeetan, estriboak, labain-eragozleak.
- Mp3 eta halakoentzako konexioa.
- Talkak xurgatzeko sistema.
- Garraiatzeko gurpilak.

2.- ELIPTIKOA.-

- Autoelikadura-sistema eta balazta elektromagnetikoa, sarerako konexiorik gabe.
- Pedal ez-labaingarriak.
- Uhal bidezko transmisioa.



- Gutxienez 22 erresistentzia-maila eta entrenatzeko 25 programa. Kontrol-panel elektrikoa.
- Bihotz-erritmoaren sentsorea, sistema polarrarekin bateragarria.
- Oinkaden distantzia, gutxienez 45 cm.
- Ez labaintzeko materialeko pedalak.
- Garraiatzeko gurpilak.
- 3- BIZIKLETA BERTIKALA.-
- Balazta elektromagnetikoa, sareko konexiorik gabe.
- Uhal bidezko transmisioa.
- Gutxienez entrenatzeko 30 programa. Kontrol-panel elektrikoa.
- Bihotz-erritmoaren sentsorea, sistema polarrarekin bateragarria.
- Garraiatzeko gurpilak.
- ARRAUNA.-
- Balazta elektromagnetikoaren sistema. Gutxienez 15 intentsitate-maila.
- Entrenatzeko 10 programa baino gehiago. Kontrol-panel elektrikoa.
- Uhal bidezko transmisioa.
- Bihotz-erritmoaren monitorizazioa.
- Garraiatzeko gurpilak.
- INDOOR ZIKLOKO BIZIKLETA.-
- Balazta-sistema erregulazioarekin eta larrialdietarako blokeoa.
- Uhal bidezko transmisioa. Inertzia-bolantea: gutxienezko pisua, 18 kg.
- Garraiatzeko gurpilak.
- Pedal mistoak.
- Altzairuzko xasisa. Korrosioaren kontrako tratamendua alde mugikor guztietan.

MUSKULAZIORAKO EKIPAMENDUAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK.

.-Erabiltzaileei ematen zaien informazioan kontuan hartu beharko da berdintasunean oinarritutako hizkera. Irizpide hori bera erabiliko da irudiekin.

.-Testua euskaraz ere jarriko da.

.-Makinetan lan egiteko lekutik irakurtzeko moduko informazio-panelak jarriko dira. Horietan, erabiltzeko argibideak jarriko dira, azalpen diagrama eta ariketan parte hartzen duten muskuluak barne.

.-Ekipamenduak aukera emango du mugimendu gidatu eta librean egiteko, makinak berak edo norberak egonkortutakoak (polea eta kableen bidez), eta beso/hankak independenteki mugitzeko aukera emango du(makina isolateralak).

.-Ekipamenduek erresistentzia handiko altzairuzko txirikorda-kableen bidezko transmisioa izango dute, nylonez eta altzairuzko xaflez estalita. Altzairuzko egitura, gutxienez 4 mm-koa, ST-37/40, kableak gutxienez 6 mm-koak izango dira.

.-Makina bakoitzaren lan-kargak kirolari hasiberriari edo aurreratuari egokituta egongo dira.

.-Xasisaren egitura eliptikoa edo zirkularra izango da.

.-Material guztiak egonkortasun nahikoa izango du berez, hau da, lurrean ainguratu gabe.(kasuaren arabera)



.-Xaxis eta tapizetan kolore eta itxura aukeratu ahal izango da.

.-Eserlekuak eta bizkarraldeak dentsitate aldakorrekoak izango dira, aglomeratu poliuretanoz zabaldua eta larru imitazioz estalita, poliester, poliuretano eta PVC osagarriekin, izerdiaren ondorioz ez hondatzeko erresistentzia duena eta anatomikoki egokituak.

.-Egokitzapenak erabiltzaileak berak erraz ikustekoak izango dira. Karga aukeratzeko gailua lan-planoarekin lerrokatuta egongo da, eroso erabiltzeko.

.-Espeka independenteak izango dira goi mailako tren makinetan, mugimenduetarako, baita ibilbide konbergenteak ere, eta lan-karga erresistentzia aldakorraren arabera egokitu ahal izango da..

.-Diseinu antropometrikoa eta biomekanikoa izango dute, behar bezala eta modu seguruan erabiltzen dela bermatzeko.

.-Oinarria gomazkoa izango da, egitura babesteko eta makinetan egon daitezkeen irristadak saihesteko.

.-Egitura indartuta egongo da, egituraren osotasuna ahalik eta sendoena izan dadin eta babesa areagotzeko.

.-Heldulekuak goma ez xurgatzailezkoak izango dira, desgastearen kontrakoak. Era berean, babestu egingo dira transmisio elementuak, errodamenduak eta inertzia-bolanteak.

B) Proposamen teknikoan eginiko hobekuntzak: **gehienez ere 15 puntu:**

- Irudiaren eta estetikaren, ekipamenduaren eta gelaren inguruan eginiko hobekuntzen deskribapena: gehienez ere 5 puntu
- Ekipamendu informatikoan eginiko hobekuntzak: errutinak eta ariketak kudeatzeko eta gela kudeatzeko softwarea: gehienez ere 3 puntu.
- Makinak minusbaliatuentzat egokitzea: gehienez ere 3 puntu.
- Eskaintako ekipamendua erabiltzeko prestakuntza-programak: gehienez ere 4 puntu.

B) FORMULA BIDEZ ZENBATU AHAL DIREN IRIZPIDEAK (gehienez ere 55 puntu)

Eskaintza ekonomikoa. Eskaintza ekonomikoa balioesteko honako hauek hartuko dira aintzat:

55 puntu emango zaizkio eskaintza ekonomiko baxuenari eta gainerako eskaintzetan formula hau aplikatuko da:



$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Eskaintza onenaren prezioa}}{\text{Balioesteko eskaintzaren prezioa}} \times 55$$

Aurkeztutako eskaintza ekonomikoei dagokienez, neurrigabeak diren edota normalak ez diren eskaintzen ondorioz bete ezin diren proposamenak ikustea ahalbidetuko duten mugak izango dira Administrazio Publikoko Kontratuen Legearen Araubide Orokorraren 85 artikuluan eta ondorengoetan ezarritako parametro objektiboak, aurkeztu diren eskaintza baliozkoen multzoari erreferentzia eginez.

Gehienez ere 100 puntu lortu ahal izango dira.

12.- Esleipendunak aurkeztu beharreko behin betiko bermea eta agiriak.

5 egun balioduneko epean, Administrazioak eginiko errekerimenduaren jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, esleipendunak behin betiko bermea eratu beharko du, zehazki, kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 5koa (BEZik gabe), 96. artikuluan ezartzen duen edozein modutan. Horrela, 100. artikuluan deskribatzen diren kontzeptuei erantzungo zaie, biak ere 3/2011 LEDkoak (horren bidez onetsi zen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina). Bankuaren abalaren bidez eratu bada, berau II. Eranskinaren ereduarekin bat etorritz idatziko da.

Kontratuaren likidazioa onetsi ondoren, abala itzultzeko edo baliogabetzeko erabakia emango da.

Era berean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

13. Kontratua esleitzea.



Kontratua **3 egun balioduneko epearen baitan esleituko da**, aurreko puntuan adierazitako agiriak jaso ondorengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Legearen 151.3 artikuluan xedatzen den bezala.

Esleipena lizitatzailerari arrazoitu eta jakinaraziko zaie, eta aldi berean, kontratatzailearen profileen argitaratuko da, 3/2011 LEDren 151.4 artikuluko edukia jasota. Hori dena edozein modutan egingo da, betiere hartzaileak hori jaso duela jasota geratzea ahalbidetzen badute eta artikuluan adierazitako baldintzak betez.

14.- Kontratua formalizatzea.

Gehienez ere **15 egun balioduneko epean**, lizitatzailerari esleipenaren jakinarazpena egin ondorengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, esleipenduna Derioko Udal Kiroldegira bertaratuko da dagokion kontratua administrazio-agirian formalizatzeko, 3/2011 LEDren 156.3 artikuluekin (azken paragrafoa) bat etorritik.

15.- Hornidura entregatzea eta hartzea.

Kontratu honen xede den hornidura entregatzeko gehienezko epea 15 egun naturalekoa izango da, esleipena administrazio-agirian formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Erakunde alokatzailea aipatu epea igarota berandutu egin dela ulertuko da, eta ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldeztu aurretik agindua ematea.

Hornidura Derioko udal kiroldegian emango da.

Gehienez ere HILABETEko epean, hornidura ematen denetik aurrera zenbatzen hasita, harreraren egintza formala eta positiboa egingo da.

Hornidura jasotzeko moduan ez badago, berariaz jakinaraziko da, eta kontratistari argibideak emango zaizkio akatsak zuzentzeko edo beste hornidura bat emateko, hitzartutakoarekin bat etorritik. Akatsak konpondu edo aldatu ez direnean, Administrazioak kontratistaren kontu utziko ditu. Hala, ordaintzeko betebeharratik salbuetsita geratuko da edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea eskuratuko du.

16.- Ordaintzeko modua.



Horretarako, dagokion **faktura** aurkeztuko da, Derioko Udal kiroldegiko sarreren erregistro orokorraren bidez. Faktura horretan jada eginiko horniduren hileko kuotak sartuko dira, eta horiek **EAREN erregistroan aurkeztu ondorengo 30 egunen buruan** ordainduko dira.

Faktura horiek apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuan eta azaroaren 28ko 1496/2003 EDn exijitutako baldintzak beteko dituzte. Nahitaez agertuko dira honako hauek: fakturaren zenbakia, izen-abizenak edo sozietate-izena, IFK, helbidea, ezarri beharreko zerga-tasa eta BEZaren kuota, baita dagokion ordainketarako (hori onetsi ostean) transferentzia egiteko banku kontuaren zenbakia ere.

Klausula honen ondorioetarako, esleipendunak Plegu honen III. eranskina **“HIRUGARRENEN ERREGISTROA; BANKU KONTUA IZENDATZEA”** aurkeztu beharko du, behar bezala beteta.

17.- Eskumenak eta jurisdikzioa.

Mugen barruan eta lege honetan adierazitako baldintza eta ondorioen arabera, kontratazio-organoak eskumena izango du administrazio kontratuak interpretatzeko, berau betetzeko zalantzak ebazteko, interes publikoengatik aldatzeko, ebazpenak adosteko eta horren eraginak zehazteko.

Dagozkion erabakiek administrazio-bidea amaitu ahal izango dute, eta berehala betearaztekoak izango dira. Horri dagokion espedientean audientzia emango zaio kontratistari.

Lizitatzailleek administrazioarekiko auzien jurisdikzioa prestatzetik eta betetze-maila esleitzetik eta ondorio eta iraungitzetik eratorritako kontu guztiak bete beharko dituzte, hori dena berariaz uko eginda egokitu ahal zaien beste edozein eskumeni, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duen 3/2011 LEDren 21.1 artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta.



18.- Agiriak itzultzea.

Kontratua esleitu eta errekursoak jartzeko epeak igaro ondoren, errekurtsorik jarri gabe, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak interesdunen esku geratuko dira, Administrazio Publikoko Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 87.4 artikuluan xedatzen den bezala. Horiek hartzen ez badira, Administrazio honen esku geratuko dira, eta garbitzea ekarri ahal izango du.

19. Datuen konfidentzialtasuna.

Kontratazio hau gauzatzeko datu pertsonalak eskuratu behar badira, kontratistak SPKLTBren hogeita seigarren Xedapen Gehigarriak agindutako obligazioak bete beharko ditu; hain zuzen ere, Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin lotutakoak eta hura garatzeko arauditik eratorritako obligazioak.

Derion, 2015ko apirilaen 10an.

IDAZKARIA.



I. ERANSKINA

Proposamenaren eredia.

..... jaun/andreak,

NAN zenbakia duenak eta

kaleko zenbakian bizi eta telefono-
zenbakia eta fax-zenbakia duenak, honako hau adierazten du bere
izenean (edo-ren ordezkari gisa; IFK zenbakia):

1.- Badakiela Derioko Udal Kiroldegiak publizitaterik gabeko prozedura negoziatua ireki duela honako hau esleitzeko: "Derioko udal kiroldegiko **fitness-gelarako behar den ekipamendua ALOKATZEKO, diseinatzeko eta definitzeko** kontratua esleitzeko prozedura irekian parte hartzeko eskaintza".

2.- Aztertu dituela eta ezagutzen dituela baldintzen pleguak eta espedientean jasotako gainerako agiriak, baita aplikatzekoak diren legezko testuak ere.

3.- Bere erantzukizunpean aitortzen duela gaitasun juridikoa eta bitarteko nahikoak dituela kontratuaren edukia gauzatzeko, eta horretarako exijitzen diren baldintza zehatzak betetzen dituela. Hala, esleipendun suertatzekotan, aipatu prestazioa gauzatu du, edozein kasutan, onetsitako pleguen betekizunak eta baldintzak betez.

4.- Hitzematen duela, esandako guztiarekin bat etorriz, lehen puntuan aipatzen den kontratua gauzatu duela zenbatekoan
(*jarri letraz eta zenbakiz¹*) gehi euro, BEZaren %-ri
dagokiona. Hau da, guztira-ko euroan.

Horrek hilean prezio hau dakar, BEZa barne:

Gastu guztiak eskainitako prezioan jasota daudela ulertuko da, mantentze- eta garraio-gastuak barne.

¹ Zenbakien bidez eta letren bidez adierazitako zenbatekoan bat etortzerik ez badago, lehentasuna emango zaie letrei.



II. ERANSKINA

Behin betiko bermea eratzeko abalaren eredia

..... (1) kaleko zenbakian bizi eta IFK zenbakia duenak, bere izenean eta-ren (2) ordezkari gisa, ekitaldi hau betearazteko botere nahikoa du, dokumentu honen azpialdean egiaztatzen den ordezkariaren ondorioz,

ABALATU EGITEN DU:

..... (3), IFK duena, Derioko Udal Kiroldagian, zenbatekoan (4), Derioko Udal Kiroldagiko **fitness-gelarako behar den ekipamendua ALOKATZEKO, diseinatzeko eta definitzeko** kontratua gauzatzeko erantzukizunak bermatzeko.

Abal hau solidarioki eman zaio obligaziodunari, eta berariaz uko egin zaio eskusio- eta banatze-onurari, Derioko Udal Kiroldagiko Diruzaintzaren lehen eskakizunean ordaintzeko konpromisoarekin, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duen 3/2011 LEDren eta berau garatzeko arauetan aurreikusitako baldintzei jarraikiz.

Berme-aldiak Administrazioak berau bertan behera uzteko baimena ematen duen arte iraungo du.

..... (lekua eta eguna)

..... (erakundearen sozietate-izena)

..... (ahaldunen sinadura).

-
- (1) Abal-emailearen sozietate-izen osoa.
 - (2) Ahaldunaren edo ahaldunen izen-abizenak.
 - (3) Abaldunaren izen-abizenak edo sozietate-izena.
 - (4) Zenbakietan eta letretan.

III. ERANSKINA

**HIRUGARRENEN ERREGISTROA
BANKU-KONTUAREN IZENDAPENA**

REGISTRO DE TERCERAS PERSONAS
DESIGNACIÓN DE CUENTA BANCARIA

Kontuaren titularra Titular de la cuenta			
IFZ edo IFK / NIF o CIF		Izen- abizenak edo sozietate-izena / Nombre y apellidos o razón social	
Helbidea: kalea / Domicilio: calle		Zk. / N°	Udalerrria / Municipio
Lurraldea / Provincia	Posta- kodea / Código postal	Telefonoa	Faxa
Helbide elektronikoa Correo electrónico			

Bankuko datuak / Datos bancarios				
Erakundearen kodea Código de la entidad	Sukurtsalaren kodea Código de la sucursal	KZ D.C.	Kontu zenbakia Número de cuenta	

**BANKUAREN EDO KUTXAREN
SINADURA ETA ZIGILUA**
kontua badela egiaztatzeko.

FIRMA Y SELLO DEL BANCO O CAJA
certificando la existencia de la cuenta.

Sin. / Fdo.:

- Ordainketa ez atzeratzeko, bidali fitxa hau postaz edo Diruzaintzan zuzenean aurkeztuz, nahiz eta datuak faxez aurreratu.

Data / Fecha:

TITULARRAREN SINADURA
FIRMA DE LA O EL TITULAR

Sin. / Fdo.:

- Para no demorar el pago, remita la ficha a vuelta de correo o preséntela personalmente en Tesorería, aunque nos adelante los datos por fax.